

I D ERANSKINA

**Jarduera sailkatuaren aurretiazko jakinarazpena
behar duten jarduerak eta instalazioak
(10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko
Ingurumen Administrazioari buruzkoa)**

ANEXO I D

**Actividades e instalaciones sometidas a
comunicación previa de actividad clasificada
(Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración
Ambiental de Euskadi)**

<p>I. eranskin honetako a, b eta c ataletan sartzen ez diren jarduerak badira, jarduera eta instalazio hauei jarduera sailkatuaren aurretiazko jakinarazpena egin beharko zaie:</p>	<p>Siempre que se trate de actividades no incluidas en los apartados A, B y C de este Anexo I, se someterán a comunicación previa de actividad clasificada las siguientes actividades e instalaciones:</p>
<p>1 Argindarra ekoizteko instalazioak edo energia berriztagarriak argindar bihurtzeko hartze- eta eraldatze instalazioak, potentzia instalatua 50 kW-etik gorakoa eta 100 kW-ekoa edo baxuagoa baldin badute. Ez dira kontuan hartzen dagoeneko finkatuta dauden lursail urbanizatuak edo lehendik dauden eraikinetako energia fotovoltaikoko instalazioak.</p>	<p>1 Instalaciones productoras de energía eléctrica e instalaciones de captación y transformación de energía renovable en energía eléctrica con una potencia instalada superior a 50 kW e inferior o igual a 100 kW. Quedan excluidas las instalaciones de energía fotovoltaica que se sitúen en terrenos urbanizados ya consolidados, o bien sobre edificios preexistentes.</p>
<p>2 Hainbat tailer eta lantegi. (ibilgailu motordunak eta antzekoak mantentzea eta konpontzea; zurgindegiak; galdarategiak; muntaketa lantegiak; mekanizazio lantegiak; okintzako, gozogintzako edo catering lantegiak) I.C eranskinetako 5. eta 6. puntuetan jasotakoak izan ezik.</p>	<p>2 Talleres y obradores varios (mantenimiento y reparación de vehículos a motor y similares, carpinterías, caldererías, montaje, mecanización, obradores de panadería, pastelería, catering...), salvo los incluidos en los puntos 5 y 6 del Anexo I.C.</p>
<p>3 Aurreko eranskinetako 7. puntuan ez datozen produktuak eta materialak biltegiatzea, salerostea eta erakustea dakarten jarduerak edo instalazioak.</p>	<p>3 Actividades o instalaciones de almacenamiento, comercio y exposición de productos y materiales no incluidas en el punto 7 del anexo anterior.</p>
<p>4 Erregai likidoak edo gaseosoak biltzeko instalazioak, 50.000 litrotik beherako edukia dutenak; sailkapen honetatik kanpo utzita gasolindegia batean, hornitegi-parke batean, banatze-instalazio batean edo horren pareko instalazio batean daudenak.</p>	<p>4 Instalaciones de almacenamiento de combustibles líquidos o gaseosos que no superen los 50.000 litros de capacidad, exceptuadas aquellas que forman parte de una estación de servicio, parque de suministro, instalación distribuidora o instalación análoga.</p>
<p>5 100 m²-tik gorako azalera eraikia duten ibilgailuzaindegia.</p>	<p>5 Guarderías de vehículos cuya superficie construida supere los 100 m².</p>
<p>6 Zenbait zerbitzu-jarduera: haurtzaindegia, ikastetxeak, osasun-zentroak eta botikak, albaitaritza klinikak, polizia-etxeak eta segurtasun-zentroak, bulegoak, ile-apaindegia, masaje-etxeak eta hiltegi-zerbitzuak.</p>	<p>6 Actividades de servicios tales como guarderías infantiles, centros de enseñanza, centros sanitarios y de atención farmacéutica, clínicas veterinarias, comisarías y centros de seguridad, oficinas, peluquerías, salas de masaje y funerarias.</p>
<p>7 Hotelak, ostatuak, aterpetxeak, nekazaritza-turismoko etxeak, egoitza komunitarioak, adinekoen egoitzak eta antzeko</p>	<p>7 Hoteles, pensiones, albergues, casas de agroturismo, residencias comunitarias, residencias de personas mayores y</p>

	establezimenduak.		establecimientos similares.
8	Jarduera sailkatuaren lizentziarik behar ez duten jendaurreko ikuskizunetarako edo jolas-jardueretarako establezimenduak.	8	Establecimientos de espectáculos públicos o actividades recreativas que no se encuentren sujetos a licencia de actividad clasificada.
9	Jarduera sailkatuaren lizentzia behar ez duten gurtza-guneak.	9	Centros de culto que no se encuentren sujetos a licencia de actividad clasificada.
10	Abeltzaintzako ustiategi txikiak eta etxeo eskortak, jarduera sailkatuaren udal-lizentzia behar duten instalazioak eta jarduerak aurreikusten dituen eranskinean sartuta ez daudenak.	10	Pequeñas explotaciones ganaderas y corrales domésticos no incluidos en el anexo en el que se prevén las instalaciones y actividades sujetas a licencia municipal de actividad clasificada.
11	Eraldaketa-zentroak.	11	Centros de transformación.
12	Informazioa tratatu eta komunikatzeko zentroak (kalkulu-zentroak, datu-bankuak, irrati-errepikagailuak eta telebista-errepikagailuak, satelite bidezko errepikagailuak, telefonia mugikorreko antenak eta oinarriestazioak, irrati-telefonoko estazioak eta estazio irratitelegrafokoak, irrati-igorgailuak, telebista-igorgailuak eta alarmak kontrolatzeko zentralak) eta antzekoak.	12	Servicios de tratamiento y comunicación de la información (centros de cálculo, bancos de datos, repetidores de radio y televisión, repetidores vía satélite, antenas y estaciones base de telefonía móvil, centros de tratamiento electrónico o informático de la información, estaciones radiotelefónicas y radiotelegráficas, emisoras de radio y televisión y centrales de control de alarmas) y similares.
13	Instalazio osagarriak:	13	Instalaciones complementarias
	<ol style="list-style-type: none"> 1. Galdara-gelak 2. Airea girotzeko instalazioak 3. Kamera hozkailuen instalazioak 4. Erradio-diagnosi medikoa egiteko instalazioak; alegia, aplikatzekoa den erregelamenduaren arabera, diagnosi medikak egiteko helburua daukaten X izpien ekipoak eta instalazioak. 		<ol style="list-style-type: none"> 1. Salas de calderas 2. Instalaciones de aire acondicionado 3. Instalaciones de cámaras frigoríficas 4. Instalaciones de radiodiagnóstico médico, entendiendo por tales los equipos e instalaciones de rayos X con fines de diagnóstico médico, de acuerdo con la reglamentación que resulte de aplicación.
14	Errauste-laberik gabeko hilerri eta tanatorioak.	14	Cementerios y tanatorios sin crematorio.
15	500.000 m ³ -ra arteko edukiera duten lur eta harkaitz-betelanak, urtebete baino gutxiago irauten badute, azpiegitura linealeko obrei lotutakoak izan ezik.	15	Rellenos de tierras y rocas con una capacidad de hasta 500.000 m ³ cuya ejecución se prolongue por un tiempo inferior a un año, excepto aquellos vinculados a obras de infraestructura lineal.
16	Osasunean eta ingurumenean antzeko ondorioak izan ditzaketen beste jarduera batzuk.	16	Otras actividades que puedan tener efectos análogos sobre la salud y el medio ambiente